

Euskal Herriko Klaretar Misiolariak

IRAKASLE BERRIENTZAT
IKASTETXEETAKO KLARETAR IZAERAZ
PRESTAKETA IKASTAROA

2007ko urtarrilatik – 2008ko abendura

CURSO DE FORMACIÓN EN LA IDENTIDAD
CLARETIANA DE LOS COLEGIOS PARA
PROFESORES NUEVOS

Kristau Hezkuntza Saila / Prefectura de Educación Cristiana

1.- ZERGATIAK

- **“Funtsezkoa ez da jakintzat eman behar”.** Mami-mamizko gaiak ez dira sekula ezagutuztat eman behar. Beharrezko zaigu behin eta berriro zertan diren aztertzea, irizpideak sendotuz aurrera jarraitu ahal izateko. Esateko, ez da lortuztat eman behar gure ikastetxeak bete-betean eskola katoliko direnik, heziketa buruzko Gogo-oinarria¹ sendotua dagoenik, misiolari izaeratik abiatuta heziketan ebanjelizatze lana betetzen dugunik, erabilitako pedagogia orokorra eta baturagilea denik, eskaintako zerbitzu soziala bikaina eta inolako bazterketarik gabekoa denik.
- **“Besteekin lankidetzan”.** Esamolde ezaguna bilakatu da gure artean. Madrileko Nuntzioari Aita Claret-ek idatzitako gutunean aipatzen den esaldia da; Kuba-rako Artzapezpiku izendatua izatea gogoko ez duela agertzen dionean. Claret-en ebanjelizatzaile ibilbidea aztertu ezkeron nabari da “besteekin lankidetzan” bere izaera eta ekiteari zuzenki lotua dagoela. Bere ekinaren osagai eta ildoak izan zen. Esamolde horri gaur “misio partekatua” deitzen zaio.
- **“Hezitzaileak besteen aldeko jardunean eta bizieran irakasten du”.** Hezkuntzan dihardutenek bere mugak izan ditzakete, baina ezin litzazieke onartuko txepelak izatea. Gizartean gertatzen denetaz adi egonez besteen aldeko jardun eta bizieran irakasten ez badu botere ezkutuen menpeko txotxongilo hutsa bilaka daiteke. Porrotean geratuko da. Hezitzaileari iraganaren oroigile eta etorkizunaren eragile izatea eta gertakizunen aurrean erantzukizuna dagozkio, eginkizun hori ez badu bere egiten, zaila izango zaio lan eraldatzailea lortzea.
- **“Heziketa eta ebanjelizatze arteko loturak”.** Behin eta berriro finkatu beharko dugu heziketa egitasmoan heziketa lana eta ebanjelizatzea ez dabilzala bata besteagandik aldentuta, ez dira maila desberdinekoak ezta besterik gabe pilatu beharrekoak, baizik elkar bilduak; heziketari ere badagokio sinesmena piztu, jarraitu, garatzen lagundu, ospatu eta hautu bidean jarri behartzea. Helburu honen azpian datza gizakien eta Jainkoaren asmoak ez direla kontrajarriak, baizik osagarri eta armonian

¹ “Ideario” delakoa

bil daitezkeenak, Jesusek bere bizitzan agertu bezala, Jainkoaren Semeak gizabidea bereganatu eta gaindurara eraman zuen.

2.- HELBURUAK

- Gaurko gizartean ikastetxe erlijiosoak eta batez ere Klaretar Ikastetxeen berezitasuna ezagutu eta zehaztu.
- Aita Claret nor zen ezagutu eta ildo beretik Klaretar Misiolarien izaera, karisma eta misioa.
- Klaretar Ikastetxeek dituzten jomuga ebanjelizatzaileak eta sinesmen heziketarako jokabideak ezagutu.
- Hezitzaile/maisuari dagozkion zereginak hausnartu, klaretar izaerak bereko dituen berezitasunak nabarmenduz.
- Klaretar Ikastetxeen ildo hezitzaileak eta "hezkuntza joera" ezagutu.
- Ikastetxearen agirietan finkatzen den misioa, izaera eta pentsamoldea aztertu: Gogo-oinarria, Heziketa Egitasmoa² eta Pastoral Egitasmoa.

3.- IKASTAROAREN EGITURA

- Bi ikasturtetan zehar egingo da.
- Ikasturte bakoitzean Probintzi mailako hiru (3) Topaketa egingo dira eta beste hiru (3) Bilerak ikastetxe bakoitzean (hauetako bakoitza bi ordukoa).
- Probintzia mailako Topaketak eta ikastetxe bakoitzeko Bilerak elkar lotuak egongo dira. Topaketan landutakoa ikastetxeetako Bileretan sakonduko da.
- Probintzia mailako Topaketa bakoitzaren amaieran partaideak koaderno bana jasoko dute, norberaren burutaldi eta lanerako.
- Partaide bakoitzaren lana Gaiaren Gidariari bidaliko zaio. Lan pertsonala ikastetxeko Bileran besteenekin elkar jarriko da.
- Lan-hari honek partaide bakoitzari lan pertsonal sendoa eskatzen dio, Bileretan, Topaketetan eta beste zereginetan.
- Partaide bakoitzari jarraipena egingo zaio. Jarraipena Ikastaroko Gidaria eta ikastetxeko Zuzendari Orokorrek zuzenduko dute.

² "Proyecto Educativo" delakoa

4. - METODOLOGIA

a. Probintzia mailako Topaketak

Ikastaroko lehenengo urratsa. Hitzaldien bitartez jakitun batek gaia aurkeztuko du. Hitzaldi horik partaideak geroxeago landuko dituzte (Topaketan bertan) hizlariak jarritako lan-hariaren arabera.

Hizlariak Topaketa amaieran lan koadernoan banatuko die, norberak irakurri eta sakontzeko eta halaber ikastetxeetako talde lanaren oinarri gisa.

Probintzia mailako Topaketak hiruhilabete-aldi bakoitzaren hasieran egingo dira. Ikastaroko *Gidariak* antolatu eta zuzenduko ditu.

b. Koadernoari lotutako lan pertsonala

Topaketa ostean lan pertsonala dator. Hiruhilabete-aldian zehar egingo da, koadernoan landuz. Partaideek lana *Gidariari* bidaliko diote. *Gidariak* jarraipena eta lanak zuzenduko ditu.

c. Talde lana eta elkar jartzea

Saio hau ikastetxe bakoitzean egingo da.

Bilera hiruhilabete-aldiaren amaiera aldera egingo da (egutegian aldeztu aurretik zehaztuz) burutaldiak partekatuz.

Lan horren bidegilea *Gidaria* izango da. Bileran ere ikastetxeko Zuzendari Nagusiak hartuko du parte.

d. Jarraipen pertsonala

Partaideei jarraipen pertsonala egingo zaie, ez soilik prestakuntza eta karisma gaietan, baita eguneroko lanbide gaietan ere.

Jarraipen pertsonala *Gidaria* eta ikastetxeko Zuzendari Orokorren esku izango da.

5. - GAIEN EDUKIA

1go Gaia: Klaretar izaera.

Aita Claret. Klaretar Sendia. Klaretar Misiolariak. Euskal Herria Probintzia.

2. Gaia: Kristau Eskolaren Izaera. Klaretar Ikastetxeen Izaera eta Misioa.

Kristau eskolaren oinarri eta ezaugarriak. Klaretar Ikastetxeen Gogoinarria.

3. Gaia: Ebanjelizatze jarduera Eskolan, Ebanjelizatze jarduera klaretar ikastetxeetan eta Ikastetxeen Pastoral Egitasmoa.

Zer da ebanjelizatzea? Ebanjelizatze jarduera eta Hezkuntza, ebanjelizatze jardueraren aukerak, Haur eta Gazteen Bokazio Pastoraltzarako Egitasmoa, otoiztegia, sinesmen heziketa.

4. Gaia: Hezitzailea klaretar hezitzaile gisa.

Nolako izaera ematen digu klaretar karismak?, Hezitzailearen ezaugarriak klaretar karismaren ikuspuntutik. Tankera pedagogikoak ematen duen izaera.

5. Gaia: Hautakizun metodologiko eta pedagogikoak.

Ikasleen sustapena. Tutoretza. Ikaslearen aldeko jarraipen pertsonala. Familien sustapena. Ikastetxearen Heziketa Egitasmoa.

6. Gaia: Misio Partekatua Familiekin batera.

Zer da Misio Partekatua?, Oinarriak eta Irizpide Nagusia, Misioan batera, Jardunbidea, Jarrerak, Ikastetxeko kristau elkarteak... Elkargo Hezitzailearen³ antolamendua, ikastetxearen antolabidea.

³ “Comunidad Educativa” delakoa

6. - ERAGILEAK

a. Ikastaroko Gidaria.

Joseba Kamiruaga, Euskal Herria Probintziako Klaretar Misiolarien Nagusi Probintziala.

Gidariaren zeregin nagusienak hauek dira:

- Prestaketa bere orokortasunean antolatu eta bateratzea.
- Partaideen lan pertsonala gidatu eta aztertzea.
- Partaideen jarraipen pertsonala.
- Ikastetxeetako talde lana zuzentzea.

b. Hizlariak:

Probintzia mailako Topaketak gidatuko dituzte, dagozkien gaiak aurkeztuz.

Gaia lantzeko koadernoak prestatuko dute, partaideek Topaketa ostean landuko dutena.

c. Partaideak

Ikastaroa egingo dute. Onartu beharra dute:

- Probintzia mailako Topaketetara joan eta parte hartzea.
- Banatutako koaderno lana pertsonalki lantzea.
- Ikastetxean egingo diren talde laneko Bileretara joan eta parte hartzea, koadernoko lana elkarren artean landuz.
- Klaretar ikastetxeko hezitzaile jardueran ikasitakoaren arabera jardun eta betetzen saiatu.

d. Ikastetxeko Zuzendari Orokorrak

Ikastetxeko talde lanetan parte hartuko du.

Partaideen jarraipena egingo du.

1go TXANDAREN EGUTEGIA
EUSKAL HERRIA PROBINTZIAKO KLARETAR IKASTETXETAKO IRAKASLE BERRIENTZAT
PRESTAKUNTZA IKASTAROA

1. Iraupena:

Bi urte: 2007 eta 2008. 2007ko urtarriletik 2008ko abendura.

2. Probintzia mailako Topaketak:

Egunak

2007. Urtarrilak 23

2007. Apirilak 25

2007. Irailak 25

2008. Urtarrilak 22

2008. Apirilak 22

2008. Urriak 21

Ordutegia

10:00 Otoitza.

10:15-11:15 Lan saioa.

11:15-11:45 Atsedena.

11:45-13:15 Lan saioa.

13:15-15:30 Atsedena. Otordua.

15:30-17:30 Lan saioa.

17:30 Amaiera eta itzuli.

Lekua:

Agurain

3.- Lan pertsonala eta burutaldiaren emaitza Gidari Nagusiari e-mailez bidali (mis.claretianos.eus@confer.es)

2007 Otsaila. Otsailaren 26tik Martxoaren 2ra.

2007 Maiatza. Maiatzaren 28tik Ekainaren 1era.

2007 Azaroa. Abenduaren 3tik 7ra.

2008 Otsaila. Otsailaren 25etik 29ra

2008 Maiatza. Ekainaren 2tik 6ra.

2008 Azaroa. Abenduaren 1etik 5era.

4. Taldeko lana. Ikastetxe bakoitzean elkar jartzea.

2007. Martxoaren 19tik 23ra

2007. Ekainaren 11tik 15era

2007. Abenduaren 17tik 21era

2008. Martxoaren 10etik 14ra

2008. Ekainaren 16tik 20ra

2008. Abenduaren 16tik 19ra

**EUSKAL HERRIA PROBINTZIAKO
KLARETAR IKASTETXEETAKO IRAKASLE BERRIENTZAT
PRESTAKUNTZA IKASTAROA**

2007 URTEA

2007	LEHEN HIRU HILABETEA	Urtarrila	23	Probintzia mailako Topaketa	Klaretar Izaera. <i>Aita Claret. Klarear Sendia. Klaretar Misiolariak. Euskal Herria Probintzia.</i>	Joseba Kamiruaga
		Otsaila		Lan Pertsonala		
		Martxoa	19tik 23ra	Taldeko lana	<i>Otsailaren 26tik martxoaren 2ra lanak bidali.</i>	
	BIGARREN HIRU HILABETEA	Apirila	25	Probintzia mailako Topaketa	Kristau Eskolaren Izaera. Klaretar Ikastetxeen Izaera eta Misioa.	Jesus Marauri Joseba Kamiruaga
		Maiatza		Lan Pertsonala		
		Ekaina	11tik 15era	Taldeko lana	<i>Maiatzaren 28tik ekainaren 1era lanak bidali.</i>	
	HIRUGARREN HIRU HILABETEA	Iraila	25	Probintzia mailako Topaketa	Ebanjelizatze jarduera Eskolan, Ebanjelizatze jarduera klaretar ikastetxean eta Ikastetxeko Pastoral Egitasmoa.	Aitor Kamiruaga Josu Jimenez
		Urria - Azaroa		Lan Pertsonala		
		Abendua	17tik 21era	Taldeko lana	<i>Abenduaren 3tik 7ra lanak bidali.</i>	

**EUSKAL HERRIA PROBINTZIAKO
KLARETAR IKASTETXEETAKO IRAKASLE BERRIENTZAT
PRESTAKUNTZA IKASTAROA**

2008 URTEA

2008	LEHEN HIRU HILABETEA	Urtarrila	22	Probintzia mailako Topaketa	Hezitzailea, klaretar hezitzaile gisa.	Miren Bego Eskauriaza
		Otsaila		Lan Pertsonala		
		Martxoa	10tik 14ra	Taldeko lana	<i>Otsailaren 25etik 29ra lana bidali.</i>	
	BIGARREN HIRU HILABETEA	Apirila	22	Probintzia mailako Topaketa	Hautakizun metodologiko eta pedagogikoak. <i>Ikaslearen aldeko sustapena. Tutoretza. Ikaslearen aldeko jarraipen pertsonala Familien sustapena.</i>	Jose Angel Fernandez
		Maiatza		Lan Pertsonala		
		Ekaina	16tik 20ra	Taldeko lana	<i>Ekainaren 2tik 6ra lana bidali.</i>	
	HIRUGARREN HIRU HILABETEA	Urria	21	Probintzia mailako Topaketa	Misio Partekatua Familiekin batera. <i>Elkargo Hezitzailearen antolamendua. Ikastetxearen antolabidea.</i>	Manolo Tamargo
		Azaroa		Lan Pertsonala		
		Abendua	15etik 19ra	Taldeko lana	<i>Abenduaren 1etik 5era lana bidali.</i>	

